



EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

449/2014 EBAZPENA, apirilaren 10koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, María Pilar Regulez Ariño andrea Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Medikoa izendatzen duena.

Aztertua izan da Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Mediko zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen 2014ko urtarrilaren 31ko 159/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko otsailaren 27ko EHAA (40. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak <<curriculum vitae>>-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, María Pilar Regulez Ariño andrea deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- María Pilar Regulez Ariño andrea Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Mediko izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 10a.

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA

JON ETXEBERRIA CRUZ

